



**2018KO APIRILAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko apirilaren seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Bere ezin etorria adierazi du Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 23 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO ===== (46.992,35 €)takoa onartzea erabakitzen da.

II.- LAZKAOKO UDALAREN INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MANTENTZE ETA ARTAPEN ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Lazkaoko Udalak, 2018eko otsailaren 23an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabaki bidez, Lazkaoko Udal honen instalazio elektrikoek mantentze eta artapen zerbitzuen kontrataziorako osatutako espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Iragarkia 2018ko martxoaren 8ko 48 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskeintzak aurkezteko jarritako epearen barruan, proposamen bakarra aurkeztu da:

1.- TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, SL

Proposamenaren karta azala ireki eta egileak baldintza pleguetako baldintza guztiak betetzen dituela ikusi ondoren, kontratazio mahaiak bere aldeko esleipen proposamena onartu egin du.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabakiak hartu ditu:

Lehena.- "Lazkaoko Udalaren instalazio elektrikoek mantentze eta artapen" zerbitzua TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, SLri esleitzea. Esleipenaren prezioa ondorengoa da:



Kontzeptua	Prezioa
Oinarrizko mantentze eta artapen lanak egiteagatik, hilean	880,00 €
lanak egiteagatik esku lanaren prezioak:	
- Ohiko lan ordutegian	20,00€/ordua
- gaueko lan ordutegian	20,65€/ordua
- jai egunetako orduetan	23,15€/ordua

* Prezio guzti hauek BEZ kanpo dira.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena, lehiaketara aurkeztutako bakarra bera izanik, esleitzaileri egitea.

Hirugarrena.- TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, SL ri esleipen honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontaktzen hasitako hamabost laneguneko epean kontratua izenpetzera etor dadin errekerimendua egitea.

III.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak gaur egun izapidetzen ari diren kontratazio espedienteak zein egoeratan daudenaren berri ematen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA